

Euskal AEko BPG urte arteko % 0,6 hazi da 2011ko hirugarren hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean hazkundera nulua izan da (%0,0)

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %0,6ko hazkundera izan du 2011ko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, urtaro- eta egutegi-eraginak deskontaturik, Eustatek aurreratutako datuen arabera. Datu hori kontuan hartuta, hazkundera aurreko hiruhilekoko baina bi hamarren txikiagoa da. Urte artekoan, Espainiako ekonomia %0,7 hazi da, Espainiako Bankuak egindako zenbatespenaren arabera.

Hiruhileko arteko inongo hazkunderik ez da izan 2011ko hirugarren hiruhilekoan Euskal AEko BPGan, (0,0%). Zifra hau aurreko hiruhilekoko bilakaera baina bi hamarren txikiagoa da eta Espainiako ekonomiak izandakoaren berdina, Espainiako Bankuak hirugarren hiruhilekorako egindako zenbatespenaren arabera.

Urte arteko zein hiruhilekoen arteko BPGaren jokaera hau eraikuntzaren bilakaera negatiboak eta industriaren dezelerazioak eragin dute, zerbitzuen sektorearen portaera hobearekin batera.

BPGren hazkunde-tasak (%). Euskal AE



Urtaroren eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak
Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapena

Enpleguak bestalde behera egin du, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean (0,7ko jaitsiera); aurreko hiruhilekoaren aldean ere bilakaera negatiboa izan da (0,4ko jaitsiera).

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko datu-bankua